

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatu Nagusiaren martxoaren 30eko 49/2015 Foru Dekretua, Arabako Biltzar Nagusietarako hauteskundearen deialdiari buruzkoa

Eusko Legebiltzarraren martxoaren 27ko 1/1987 Legeak 7.1 artikuluan xedatzen duenez, lurralde historikoko diputatu nagusiari dagokio Arabako Biltzar Nagusietarako hauteskundearen deialdia egitea, hauteskunde horien data eta epeak eta udal hauteskundeak berdinak izanik.

Lurralde historikoko 51 biltzarkideak hiru hauteskunde barrutietako biztanle kopuruaren arabera banatzen dira, Biltzar Nagusietarako hauteskundearen Legearen 3.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Lege horren 7.3 artikulua xedatzen duenez, deia egiten duen dekretuan, barruti bakoitzean hautatu behar diren biltzarkideen kopurua ezarriko da, soberako kopurua hondar handien arabera zuzenduz, 3.2 artikulua dioenari jarraiki.

Hauteskundearen araubide orokorraren Legearen 42.3 artikuluan (martxoaren 30eko 13/1994 Lege Organikoak emandako idazkera) aurreikusitakoarekin bat etorriz, lau urtean behin egingo dira udal hauteskundeak; hain zuzen ere, dagokion urteko maiatzaren laugarren igandean. Deia egiten duen dekretua, berriz, egun horren aurreko berrogeita hamabosgarren egunean emango da eta emate dataren hurrengo egunean argitaratuko da.

ALHAOren 2015eko 26. zenbakian, martxoaren 2koan, eta Estatistika Institutu Nazionalaren Arabako Lurralde Ordezkaritzak emandako egiaztagirian agertzen diren zuzenbidezko biztanleriaren datuetan oinarrituta, eta aipatutako manuak aztertuta, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Biltzar Nagusietarako hauteskundearen deialdia egiten da, zeinak 2015eko maiatzaren 24an izango diren, udal hauteskundeekin batera.

Bigarrena. Arabako Lurralde Historikoan 51 biltzarkide hautatuko dira, Eusko Legebiltzarraren 1/1987 Legearen 2. artikuluan aipatzen diren lurralde barrutien artean honela banatuak:

“Gasteizko Kuadrilla”ren esparrua, Gasteizko udalerriak osatua: 38 biltzarkide.

“Aiarako Kuadrilla”ren esparrua, Amurrio, Artziniega, Aiara, Laudio eta Okondoko udalerriek osatua: 6 biltzarkide.

“Zuia, Arabako Lautada, Añana, Kanpezu-Mendialdea eta Guardia-Arabako Errioxako kuadrillen” esparrua, Dulantzi, Añana, Aramaio, Armiñón, Arraia-Maeztu, Arratzua-Ubarrundia, Asparrena, Mañueta, Barrundia, Berantevilla, Bernedo, Kanpezu, Burgelu, Elciego, Bilar, Iruña Oka, Iruraiz-Gauna, Kripan, Kuartango, Bastida, Lagran, Guardia, Lantziego, Lantarón, Lapuebla de Labarca, Legutio, Leza, Moreda Araba, Navaridas, Oion, Urizaharra, Erriberagoitia, Erribera-beitia, Agurain, Samaniego, Donemiliaga, Urkabustaiz, Gaubea, Harana, Eskuernaga, Iekora, Zaldondo, Zanbrana, Zigoitia eta Zuiako udalerriek osatua: 7 biltzarkide.

Hirugarrena. Dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 30a

Diputatu nagusia

JAVIER DE ANDRÉS GUERRA

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendaria

OSCAR BELTRÁN DE OTÁLORA MARTÍNEZ DE ANTOÑANA